

Euskadiko hotel-establezimenduetako gaualdiak 2021eko urrian 2020koan baino % 155,9 handiagoak izan dira

Plazen eta logelen okupazio-mailak aurreko urtekoak baino ehuneko 30 puntu gehiagokoak izan dira

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko urrian 286.392 sarrera eta 536.749 gaualdi erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan.

2020ko urriaren aldean, hotel-sektorearen suspertzea, hala, % 161,8koa da sarreraren kasuan, eta % 155,9koa gaualdienean. 2019ko urriarekin (Covid19aren pandemiaren aurrekoa) alderatuta, ikusten da garai hartako kopuruak ia berreskuratu egin direla. Sarrerak hilabete hartako sarreraren % 96,6 izan dira, eta gaualdiak % 93,2.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia. 2021eko Urria

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2021/10	m/m-12 (%)	2021/10	m/m-12 (%)	2021/10	2020/10
EUSKAL AE	286.392	161,8	536.749	155,9	1,87	1,92
Estatukoak	188.210	126,7	355.239	119,2	1,89	1,95
Atzerritarrak	98.182	272,1	181.510	280,7	1,85	1,81
ARABA/ÁLAVA	38.976	122,6	76.842	130,8	1,97	1,90
Estatukoak	30.843	111,0	61.671	122,6	2,00	1,90
Atzerritarrak	8.133	181,3	15.171	171,6	1,87	1,93
Vitoria-Gasteiz	26.948	119,9	56.381	132,1	2,09	1,98
BIZKAIA	125.768	187,7	232.883	155,0	1,85	2,09
Estatukoak	84.303	137,8	155.690	110,4	1,85	2,09
Atzerritarrak	41.465	401,8	77.193	345,6	1,86	2,10
Bilbao	85.458	191,3	159.229	172,7	1,86	1,99
GIPUZKOA	121.648	152,6	227.024	166,8	1,87	1,77
Estatukoak	73.064	121,9	137.878	128,6	1,89	1,83
Atzerritarrak	48.584	219,0	89.146	259,9	1,83	1,63
Donostia / San Sebastián	77.699	169,1	147.195	202,1	1,89	1,69

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Arabian 38.976 sarrera eta 76.842 gaualdi izan dira urrian, aurreko urteko hilabete berean baino % 122,6 eta % 130,8 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, 2021eko urrian % 187,7 sarrera gehiago izan dira, eta % 155,0 gehiago gaualdietan; orotara 125.768 sarrera eta 232.883 gaualdi izan dira.

Azkenik, 2021eko urrian, Gipuzkoan 121.648 sarrera eta 227.024 gaualdi ian dira; urte arteko igoera % 152,6koa izan da sarreretan eta % 166,8koa gaualdietan.

Euskal AE osotara hartuta, 2021eko urriko batez besteko egonaldia 1,87 egunekoa izan da, 2020ko hilabete berean lortutakoa (1,92 egun) baino pixka bat laburragoa. 2019ko urrian, aldagai hori 1,94 egunekoa izan zen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2021eko Urria

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2021/10	p.p.*	2021/10	p.p.*	2021/10	m/m-12 (%)	2021/10	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	54,2	28,7	64,4	31,1	88,51	27,9	57,03	147,4
ARABA/ÁLAVA	54,5	23,5	69,5	28,0	80,82	21,6	56,15	103,7
Vitoria-Gasteiz	54,2	20,2	72,9	25,8	65,56	10,6	47,79	71,2
BIZKAIA	50,3	26,3	60,8	28,3	85,01	33,7	51,71	149,9
Bilbao	54,8	29,3	65,1	31,4	94,30	38,6	61,39	167,6
GIPUZKOA	58,6	33,3	67,1	35,5	95,03	23,5	63,73	162,4
Donostia / San Sebastián	65,2	39,9	72,1	42,6	113,99	22,2	82,21	198,5

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Urriko okupazio-mailei dagokienez, Euskal AE osoan % 54,2ra iritsi da plazen arabera neurtuta, eta % 64,4ra logelen arabera neurtuta. 2020ko urriaren aldean, igoerak ehuneko 28,7 eta 31,1 puntutan kokatzen dira, hurrenez hurren. 2019ko urriarekin alderatuta, aldiz, okupazio-mailen arteko aldeak negatiboak dira bi kasuetan: ehuneko 5,6 puntu gutxiago plazen arabera okupazio-mailan eta 8,8 puntu gutxiago logelen arabera.

Errentagarritasuna, ADRren (eguneko batez besteko tarifa) bidez neurtuta, 88,51 eurora iritsi da Euskal AE osoan. Lurraldeei doakienaz, Gipuzkoa nabarmentzen da 95,03 euroarekin, gero Bizkaia dator 85,01 euroarekin eta, azkenik, Araba 80,82 euroarekin. Hiriburuetan, ADR 113,99 eurokoa da Donostian, 94,30 eurokoa Bilbon eta 65,56 eurokoa Gasteizen. Zifra horiek guztiek urte arteko hazkunde esanguratsuak dakartzate: % 38,6 Bilbon, % 22,2 Donostian eta % 10,6 Gasteizen.

Euskal AEn orotara RevPar 57,03 eurokoa izan da 2021eko urrian. Gipuzkoan 63,73 eurokoa izan da, Araban 56,15 eurokoa eta Bizkaian 51,71koa. 2020ko hil berarekin alderatuta, portzentajeazko hazkundeak erakusten du sektorea nabarmen hobetu dela: % 162,4 Gipuzkoan, % 149,9 Bizkaian eta % 103,7 Araban.

Informazio-oharra. Hotelen urriko ETHIren estaldura **% 93,8koa** izan da. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62